

La población de ayer sucumbe bajo una fuerza salvaje, pero al poco tiempo resurge hermoseedada merced al acendrado patriotismo de sus hijos...

F. LÓPEZ ALÉN.

*
* *

¡ARRATS IZUGARRIA!



1813^{garren} urteko Abostuaren azkeneko gabari

Gorriak daude goiak urrutiraño,
Ageri dan guzia gorria dago,
ta lurra baño
izutzen du zeruak azkoz geiago.
Argitan zabaltzen da zeru goibela
illargi gabe,
¡ zer doakabe !
odoiak su garretan balitz bezela,
ta infernuak balira gabaren jabe.

¡ Arrats izugarria ! ¡ Ordu tristeak !
¿ Nora begiak jaco, penen kupiran
malkoz beteak,
zeruak ere bada etsai baziran ?
¡ Uri leial gaisoa garretan dana !
ta zeru gorrak,
agitz gogorak,
irabiatzen ditu berriz gu gana
elementen boaldan suzko kanborrak.

Itsasotik sortuko lanbro dokaitzak,
burrunbadan igoak turmoi tartean,
ziran ekaitzak,

eta zartatu orduko, chimist kolpean,
odoi gañeko labe sutu artatik
 jasa ta ujola,
 eurizko erroa,
amiltzen zan lurrera, iduriturik
isurtzen ote ziran sua ta odola.

 ; Sua ta odol gorria ! Naga ta igara,
sutunpadak, ansiak, ilkintza nun nai,
 chimist dardara,
biziak ta bizitzak garren errakai
ta isil-isil zijoan odol erreka,
 karrikan bera
 itsas aldera,
iturria geiturik illak taldeka
ez bazetorren sua eragoztera.

 Zeru lurra aserre... Ustez anaiak
atserritik ziranak gu gana etorri
 ziran etsaiak.

¿ Nora bada begiak jaso ta egorri ?
Ez lur, ez eche, ez esku, biotz tristea
 noraganatu?
 nun anparatu ?

 ; Burniz edo berunez laster iltzea,
noraldetik onena zan aukeratu !

 Gizon ordi taldeak askai likituan
eche eche dabiltz leian iñoren
 diru irrutsan,
onraren zale, burniz pasatu ondoren
arpegi eman duen aita, semea
 edo gizona
 iltzen dagona,
sentiturik batean agoni epea
ta ansi triste larri bat deitzendiona,

Zarrak, naiz egon zarrez obiko atean,
ez ziran barkatuak, ain guchi erriak,
beren oyea
illak ziraden ; ume jayo berriak,
gorde nairik, gaisoak, amen kolkoan,
bien biotzak
burni zorrotzak
urratzen ditu, ta amak iltzerakoan
igaro bear ditu laidozko lotzak.

¡Lotsa ta ilkintza...! Baña nora naiz eldu?
Ez, erritar maiteak, ez det nai zuen
beta goibeldu.
Gure asaben gaba gurtu nai nuen,
jarriaz begi aurrean aien kondaira,
birtute aienak
danik onenak,
zer diran bizia utsi ta argi joaira
beti ikusi zazkigun beren izenak.

¡Asaba zar gureak joanak mundutik,
Numanzitar errutsu aien modura
bizia emanik,
igo ziñaten zuzen zeru altura!
Jaunak bere saria dizute ematen
ordu ezkeru ;
bai, errauts bero,
marrireak bezela igo ziñaten
sugar Donostikotik pasa ta gero!

SERAFÍN BAROJA.

*
* *